

PRESIDENTEA  
Gentza Alamillo

AIARAKO UDALAK 2016ko OTSAILAREN 18an  
EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.

ZINEGOTZIAK

Iñigo Pinedo  
José Antonio Bartolomé  
Montse Angulo  
Susana Martín  
Josu Artetxe  
Esteban Hernando  
Nerea Goti  
Iraida Saenz de Lafuente  
Xabier Artiñano

Arespalditzan, udaletxeko bilkura-aretoan, bi mila eta hamaseiko otsailaren hemezortzian, hemeretziak direnean, Udalbatza bildu da ohiko bilkura egiteko. Gentza Alamillo Udaeta alkate jauna da mahaiburua eta albo batean aipatutako zinegotziak bertaratu dira, behar bezala deituta, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedaturikoaren arabera. Neuk, Naiara Lazpita Marcos idazkari andreak, lagundu ditut.

BERTARATU EZ

DIRENAK

Lauren Uria

IDAZKARIA

Naiara Lazpita

Alkate jaunak ongi etorria eman die eta gehiagorik gabe ohiko bilkurako gai zerrendan dauden puntuak eztabaidatzera eta bozkatzera pasa dira:

**1.- Onestea, bidezkoa bada, 2016ko urtarrilaren 21ean eginiko ohiko bilkuraren akta.**

Aurreko bilkuran 7. puntuan (dekretuen berri ematea) galdetu zen zergatik geratu zen elizaren ondasun bat OHZ ordaintzetik salbuetsita. Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun du Udalak OHZren ordenantzan 2013an egindako aldaketan arabera, salbuespenetako bat horixe zela.

Gaiari buruz ez dute ezer gehiago aipatu, eta akta aho batez onetsi dute bertaratutakoek.

**2.- .Onestea, bidezkoa bada, Urbegi Servicios Medioambientals, S.L.U. enpresaren hautaketa Aiarako eraikin publikoak garbitzeko zerbitzuaren esleipendun gisa.**

Gentza jaunak (EAJ-PNV) adierazi du Kontratazio Mahaiak erabakia hartu ondoren, langileekin bilera egin zela Urbegi enpresak zer eskaini zuen jakinarazteko, horrela, lehen eskuko informazioa izango baitzuten.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatzako bederatzi kideek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide,

**IKUSI DA.-** 2015eko azaroaren 19an erabaki zen onestea klausula ekonomiko-administratiboan eta teknikoan pleguak, Aiarako eraikin publikoak garbitzeko zerbitzua prozedura ireki bidez kontratatzeari buruzkoak.

**IKUSI DA.-** 2015eko azaroaren 28an lizitazio-iragarkia argitaratu zen EBAOn, 40 egun naturaleko epean interesdunek euren proposamenak egin zitzaizkien.

**IKUSI DA.-** Lizitazio-iragarkia 140 zenbakiko ALHAOn (2015eko azaroaren 30a),

kontratugilearen profilean eta El Correo egunkarian ere argitaratu zen (2015eko azaroaren 27a).

**IKUSI DA.-** Eskaintzak aurkezteko emandako epean bi proposamen aurkeztu ziren. Horrela jaso da dagokion espedientean.

**IKUSI DA.-** 2016ko urtarrilaren 25ean, Kontratazio Mahaia eratu zen, eta gutun-azalak ireki, aztertu eta puntuak eman ondoren, kontratugilea hautatzeko proposamena egin zuen Urbegi Servicios Medioambientales, S.L.U. enpresaren alde; izan ere, esleipen-irizpideen arabera, puntu gehien lortu zituen.

**IKUSI DA.-** Hirigintza, Lan eta Zerbitzuak eta Ingurumena Batzordeak 2016ko otsailaren 9an emandako aldeko irizpena.

**AINTZAT HARTU DA.-** Azaroaren 16ko 38/2011 Legegintzako EDren bidez onetsitako Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratuan xedatutakoa.

**AINTZAT HARTU DA.-** Tokiko Araubidearen Oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22. artikuluan xedatutakoa.

Udalbatzak, gehiengo osoz, honako hau **ERABAKI DU**:

**Lehenengoa.-** URBEGI SERVICIOS MEDIOAMBIENTALES, S.L.U enpresa aukeratzea Aiarako eraikin publikoak garbitzeko zerbitzuaren kontratugile gisa; izan ere, pleguan ezarritako esleipen-irizpideen arabera, enpresa horrek aurkeztu du eskaintza onuragarriena.

**Bigarrena.-** Erabaki hau aukeratutako enpresari jakinaraztea eta hamar egun baldioduneko epea ematea, erabaki hau jasotzen denetik zenbatzen hasita, pleguen 13. artikuluan eskatutako dokumentazioa aurkez dezan.

**Hirugarrena.-** Agiri guztiak jaso eta ontzat emandakoan (jasotzen direnetik zenbatzen hasita, bost egun baldioduneko epea egongo da horretarako), alkateak, 2015eko azaroaren 19ko osoko bilkuran Udalbatzak horretarako eskumena emanik, kontratua esleituko du.

**3.- Onestea, bidezkoa bada, klausula ekonomiko-administratiboen eta teknikoen pleguak, uda garaian Aiarako udal-igerilekuak eta bertako instalazioak mantendu eta artatzeko zerbitzua prozedura ireki bidez esleitzeari buruzkoak.**

Josu jaunak (BILDU) esan du bere taldeari ez zaiola egokia iruditzen kontratuen iraupena hain zabala izatea. Beraien iritziz, egokiagoa da kontratuen iraupena laburragoa izatea.

19ak eta 15 minutu direnean, Iñigo Pinedo jauna bertaratu da.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) adierazi du beraiek positiboki baloratzen dutela kontratuak legez eman daitekeen gehieneko iraupena (4 urte eta 2urteko luzapena) izatea, horrela, enpresak proposatutako hobekuntzak amortizatzeko denbora gehiago dauka eta.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatzako 10 kideek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide,

**IKUSI DA.-** Aiarako Udalak uda garaian udal-igerilekuak eta bertako instalazioak mantendu eta artatzeko zerbitzua kontratatuzeko beharra dauka; izan ere, bertako langileak ez dira nahikoak zerbitzu hori emateko.

**IKUSI DA.-** Zerbitzuak dituen ezaugarriak aintzat hartuta, esleipen prozedurarik egokiena irekia da, pleguek ezarritako esleipen irizpideekin bat etorritz.

**IKUSI DA.-** Kontratuaren esleipena arautuko duten administrazio-klausula berezien pleguak eta zehaztapen teknikoen pleguak idatzi eta espedienteari gehitu zitzaizkion.

**IKUSI DIRA.-** Idazkaritzak eta Kontu-hartzaitzak 2016ko otsailaren 12an emandako txostenak.

**AZTERTU DA** horrekin batera emandako dokumentazioa, eta bat etorritz Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratuan ezarritakoarekin (azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen).

Udalbatzak, gehiengo osoz, honako hau **ERABAKI DU**:

**LEHENENGOA.-** Onestea *uda garaian Aiarako udal-igerilekuak eta bertako instalazioak mantendu eta artatzeko zerbitzua* prozedura ireki bidez eta esleitzeko hainbat irizpide erabiliz kontratatzeko espedientea.

**BIGARRENA.-** Aipatutako kontratuak adierazten duen udal honetarako gastua baimentzea eta indarrean dagoen eta 2016rako luzatu den aurrekontuko 342.227.019 partidaren kargura egitea. Halaber, etorkizuneko ekitaldietako aurrekontuetan dagozkion kredituak erreserbatzea.

**HIRUGARRENA.-** Kontratua prozedura irekia erabilita arautuko duten administrazio-klausula berezien pleguak eta zehaztapen teknikoen pleguak onestea.

**LAUGARRENA.-** Lizitazio-iragarkia argitaratzea ALHAOn eta kontratugilearen profilean, HAMABOST (15) eguneko epean interesdunek egoki deritzoten proposamenak aurkez ditzen.

**BOSGARRENA.-** Alkatearengan eskuordetzea kontratuaren esleipena, Udalbatzak aukeratutako kontratistak esleipenaren proposamenean eskatzen den dokumentazio guztia aurkeztu ondoren.

#### **4.- Honako hauen berri ematea:**

**2015eko iraileko, urriko eta azaroko kontaketa-aktak, gastu eta diru-sarreraren balantzea, libreten egoera eta kreditu-aldaketak.**

Idazkariak adierazi du ez direla aurkeztu abenduko kontuak; izan ere, kontabilitateko gauza batzuk falta dira likidatu aurretik dena kitatu ahal izateko. Amaitutakoan, horren berri emango da osoko bilkuran.

#### **5.- Alkatetza Dekretuen berri ematea:**

- **Erref.- 13/16.- J.L.M.M.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Agiñaga udalerriko eraikuntza batean (labea) erreteila egiteko.
- **Erref.- 14/16.- Y.I.O.-** Obrarako uda-lizentzia ematea, Maroño udalerrian dagoen etxebizitzaren teilatua konpontzeko.
- **Erref.- 15/16.- Aldamoli, S.C.-** “Biltegi-tunelaren” okupazio-lizentziaren espedienteari dagokionez, agiri gehiago eskatzea.
- **Erref.- 16/16.- M.F.B.-** Arespalditza udalerrian dagoen eraikina legezko aurri egoeran deklaratzeko espedientea hastea.

- **Erref.- 17/16.- L.U.P.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Luiaondoko Oleta jatetxeko terrazan dagoen itxitura aldatzeko.
- **Erref.: 18/16.- M.C.Z.L.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Llanteno udalerriko lursail bat ixteko.
- **Erref.- 19/16.- Y.G.F.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Menagaraiko lursail batean patioko lurra nibelatzeko eta obra-hondakinak biltzeko edukiontzia jartzeko.
- **Erre.- 20/16.- Aiara Eskualdea.-** Zatiki organikoak biltzeko zerbitzua.
- **Erref.- 21/16.-. D.M.G.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Luiaondoko etxebizitza batean fatxada margotzeko.
- **Erref.- 22/16.- Onestea F/2015/13 zenbakiko fakturen kontabilitate-zerrenda.**
- **Erref.- 23/16.- A.P.S.-** Llantenen etxebizitza eraikitzeko obrarako lizentziaren espedienteari dagokionez, agiri gehiago eskatzea.
- **Erref.- 24/16.- M.P.A.G.-** Llantenoko lursailean dagoen eraikinaren aurreko egoera ebaluatu eta segurtasunerako gutxienezko lanen exekuzio subsidiarioa.
- **Erref.- 25/16.-** 2015eko TMZn ordainagiriak deuseztatzea eta ibilgailuei baja ematea.
- **Erref. - 26/16.-** Salmantonen behi-azienda jarduera legezatzeko aldeko txostena eta espedientearen jarraipena.
- **Erref.- 27/16.- Onestea F/2015/14 zenbakiko fakturen kontabilitate-zerrenda.**
- **Erref.- 28/16.- Onestea Ur-horniduraren eta Estolderiaren Zerga Erroldak (2015eko 4. hiruhilekoa).**

Iraida andreak (AB) 24/16 zenbakiko dekretua zer eraikini buruzkoa den galdetu du.

Idazkariak azaldu du Garavilla auzoan dagoen eraikinari buruzkoa dela eta espedienteak urte asko daramatzala zabalik; izan ere, aurreko egoeran zegoela adierazteko izapideak egiten hasi ziren baina gelditu egin behar izan ziren, jabeek eraikina birgaitu nahi zutelako adierazi baitzuten. Are gehiago, udaletxean proiektu bat aurkeztu zuten eta lizentzia ere eman zitzaizkien. Nahikoa denbora igaro da, eta ikusi da ez dela ezer egin; beraz, egokitzen joan da aurreko egoerari buruzko espedienteak izapidetzen jarraitzea.

#### **6º.- Galderak eta eskaerak.**

- Iraida andreak (AB) bere garaian, hain zuzen ere, San Vitores jaiaren aurreko egunetan harriak erori zirenean, Sierrari buruz eskatutako azterketa genealogikoaren gainean galdetu du, ea gai hori nola dagoen.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun du Arabako Foru Aldundiari eskatu zitzaizkion azterketa, baina bere ustez, haiek emandako irtenbidea gehiegizkoa dela, azpitik pasatzeko tunel bat egitea proposatu baitute. Beste irtenbide bat babesteko sareak jartzea izango litzateke, baina inpaktua izugarria izango litzateke. Eskalatzaile batzuek erortzeko zorian dauden harriak botatzea ere pentsatu dute. Leherketen aukerari arazoak ikusten dizkietela esan du Gentza jaunak, ez baitakite leherketek zer-nolako ondorioak izan ditzaketen beste eremu batzuetan.

- Iraida andreak (AB) institutuaren garrantzia publikoari buruz galdetu du, ea badakien arazo hori nola dagoen.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun du Udalaren konpromisoa dela otsailaren amaieran beste batzorde baterako deialdia egitea eta Udalak igorritako jakinarazpenak biltzea. Gaineratu du Maria ari dela agiri horiek biltzen. Institutuari eta ikastolari dagokienez, eskola-mugikortasunaren inguruko azterketa bat egingo da, eta martxoaren hasieran, beranduenez, bilduko da batzordea.

- Josu jaunak (BILDU) Menagaraik eta Udalak partekatzen duten hobi septikoari (ikastolakoa) buruz galdetu du.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun du partzuergoarekin bildu zirela. Esan diotenez, partzuergoaren asmoa da kudeaketaz arduratzea, eta nola egin dezaketen pentsatzen ari dira.

Saneamendu-obran hustutako hobiari dagokionez, Gentza jaunak adierazi du idatzi bat bidali dela eta, horren arabera, hustuketaren ondorioz Udalarari zor zitzaion guztia konpentsatuko dela, hots, ordaindu gabe dagoena ordainduko dela.

Iraida andreak (AB) galdetu ea badakien partzuergoak nolako baldintzetan sinatu nahi duen hobia (ikastolak hara isurtzen du) kudeatzeko hitzarmena; izan ere, Menagaraiko administrazio-batzarrak badauka hitzarmen horren berri, eta, antza denez, baldintza edo kondizioak urratzaileak edo administrazio-batzordearen kalterako dira. Esan du dirudienez, hobia partzuergoak kudeatuko duela eta Menagarairi partzuergoko kide gisa kobratu nahi diola, eta hori ez da bidezkoa.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun du hitzarmena nolakoa den dakitenean, dagokion batzordera eramango dutela. Partzuergoarekin hitz egingo dute nola egingo den jakiteko, eta batzorderako deialdia egingo da.

Jorrazteko beste gairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilera bukatutzat eman du hemeretziak eta hogeita hamar minutu direnean, eta aztertutako guztia eta hartutako erabakiak jasota gera daitezen, neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Arespalditzan, bi mila eta hamaseiko otsailaren hemezortzian.

OE  
ALKATE-UDALBURUA

IDAZKARIA,

Izpta.: Gentza Alamillo Udaeta

Izpta.: Naiara Lazpita Marcos